



*MERCEDES BENZeko Zuzendaritzak eta UGT, CCOO, EKINTZA eta PIM sail sindikalek atzo sinatutako kontratazio mugagabearen inguruko akordioaren aurrean, LAB sindikatuak 600 kontratu mugagabe horiek egiteko irizpide gardenak aplikatzea eskatzen du. Akordioaren aurretik, sindikatu ez-sinatzaileek (LAB, ELA eta ESK) behin eta berriro salatu dugu Lan Ikuskaritzan behin-behineko kontratazioan egondako iruzurra.*

Lehenik eta behin, gure erabateko harridura adierazi nahi dugu zenbait sindikatu sinatzailek akordioaren berri emateko mezuetan afiliatuei kurrikulumak eskatu dizkietelako. Ohiko susmoa egon da aspalditik MERCEDESen: enpresak zenbait sail sindikal "saritzen" dituela, hauek murrizketak eta lan baldintzetan atzerapenak onartzearen truke. Hori dela eta, gure kezka agertu nahi dugu, ea akordio honen atzean UGT, CCOO, EKINTZA eta PIMi emandako sari bat egon daitekeen, azken hitzarmenean lan baldintzak kaskartzea onartu dutelako. Besteak beste, kontratazio berrien diskriminazioa eta prekarietatea handitu eta malgutasuna areagotu zituztelako.

Gainera, ezin dugu ahaztu akordioa langileen ordezkarietatik kanpo dagoen gunen batean gauzatu dela, hain zuzen ere Batzorde batean non Hitzarmena sinatu ez genuen sindikatuok baztertuta baikaude. Beraz, obskurantismoa erabatekoa izan da, langileentzako ezezik, beraien ordezkarietzako ere.

Gauzak horrela, LABek exijitzen du kontratu ebentualak mugagabe bihurtzeko irizpideak publikoak, objektiboak, gardenak, komitearentzat egiaztagarriak izatea eta plantilak ezagutzea. Aurreikusitako produzkioa handitzearen ondorioz, langileak kontratatatzeko irizpide berdinak aplikatzea ere planteatzen dugu. Horixe da, gure ustez, MERCEDESen gardentasuna bermatzeko modurik eraginkorrena, baita diskriminazio eta faboritismoaren susmoa uxatzeko ere.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu Lan Ikuskaritzak duela hilabete batzuk MERCEDES BENZi 550 kontratu mugagabe eginarazi zizkiola, plantila estruktural barruan zeudelakoan. Era berean, sindikatu "ez-sinatzaileok" (LAB, ELA eta ESK) behin eta berriro salatu dugu behin-behineko kontratazio masiboan egondako iruzurra, gaur egun ehunka ebentualek lanpostu

estrukturaletan daudelako eta hauetako asko kaleratzen ari dira, kontratatutako beste langile ebentualek berain lanpostu bera betetzeb dutelarik. Beraz, gure susmoa da MERCEDESek akordio honen bidez Lan Ikuskaritzaren ebazpen gehiago ekidin nahi izan duela, ebentualen egoera tamalgarria baita.

—